

Usteak, Ustel!

Argitu ditzagun zalantzak...

Immigrazioaren ikuspegi errealista.

**Erregularizazioa, aukera bat
premia-egoeran**

18.

***Immigrazioaren ikuspegi errealista.
Erregularizazioa, aukera bat premia-egoeran***

Gonzalo—Fanjul Suárez

Ismael Gálvez-Iniestarekin batera, adierazi duzu Espainian egoera irregularrean dauden migratzaileen egundoko poltsa dagoe-la, hori hala izatea zentzugabekeria dela eta politika aldatzea komeni dela. Baina 15 urte igaro dira azken erregularizazioa egin zenetik. Guztira sei izan dira. Beharrezkoa al da jada beste antzeko prozesu bat?

Nik uste dut baietz. Baina **erregularizazioak, azken batean, errealtateari eta mugikortasunerako zein migrazioarako senezko joerei bizkarra emanda funtzionatzen duen ate estuko sistema txar baten zuzenketak dira**; immi-gratzaile irregularren poltsak sorrarazi dituzte, eta gobernuek horiei irtenbidea eman behar diete. Esango dute azken aldia dela, ez dela inondik inora berriro gertatuko, baina jakin badakite es dela egia. Azken finean, **populazio hori bildu behar dute. Arrazoi sozial eta ekonomikoengatik, eskuarki.**

Zertan dira desegokiak prozesu horiek?

Migratzaileen sarrera-fluxuaren bilakaerari langabezia-tasarekin alderatuta erreparatuz gero, alderantzizko erlazioa nabarmena da. **Hau da, Espainiako lan-merkatua dinamikoa denean eta atzerriko zein bertako langileentzako aukera interesgarriak sortzen direnean, migrazio-fluxuak handiak izaten dira. Eta ekonomiaren dinamika aldatzen denean eta atzeraldiak nabariak direnean, 2008an eta 2015ean gertatu bezala, migrazio-fluxuak gutxitu egiten dira modu naturalean, hots, gobernuen kontrolarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.**

Merkatuaren seinaleetara egokitzen ez den migrazio-kudeaketarako sistema bat dugu. Fluxuak kontrolatzeko prestatuta dago, eta ez fluxuak gobernatzeko. **Munduan barrena mugitzen diren hamar pertsonatik bederlatzi arrazoi ekonomikoengatik migratzaileak dira,** horregatik da beharrezkoa sistema malguago bat, jendeari joan-etorriak naturaltasun handiagoz egiten ahalbidetuko diena. Helmugako herrialdean aurrera egiteko aukera da migrazio-proiektuaren funtsezko elementua, elementu erabakigarria, eta hor egiten du huts, nabarmen, gure migrazio-sistemak.

Kalkuluen arabera, milioi erdi pertsona daude egoera irregularrean Espainian. Zer-nola eragiten dio horrek gure ekonomiarari?

Gutxi gorabeherako kalkulua da, estatistika ez-osoan baita, 390.000-470.000 migratzaile irregular daude. Egoera horrek zuzeneko kostua dakarkie haiei berei; **irregularitasunak zaugarritasun handiagoa eta arrisku handiagoa dakartza**. Gizarteko sektore zaugarrienak dira. Eta gure gizarteari ere zuzeneko kostuak dakartzkio. Baina, batez ere, sekulako aukera-kostua eragiten dio. Aprobetxatzen ez ditugun onurak, langileen irregularitasunaren ondorioz.

Zenbat diru galtzen du Espainiak, zuen kalkuluen arabera, erregularizatzen ez den migratzaile bakoitzeko?

Lehenik eta behin, egoera irregularrean badaude ere, pertsona horiek ekarpena egiten dute, zehazki, zeharkako zergetan eta kontsumoan. Baina ekarpena askoz ere handiagoa izango litzateke zuzeneko zergak ordaintzen eta Gizarte Segurantzaren kotizatzen utziko bagenie. Gaur egun, kontuan hartuz gero haiek zeharkako zergen bidez egiten duten ekarpena eta haien osasun- eta hezkuntza-kostua, diru-kutxa publikoari 2.000 euro inguru kostatzen zaio pertsona bakoitza urteko. **Erregularizatuz gero, batez beste 3.250 euroko ekarpena egingo luke pertsona bakoitzak urteko. Hau da, 5.000 euroko ekarpen garbi positiboa, erregularizatzearen ondorioz bakarrik.**

Segurtasun osoz dakigu egoera irregularrean dauden pertsona guztietatik 3.000 inguru ari direla lanean ezkutuko ekonomian. Erregularizatuz gero, diru-kutxan urtean 1.500 milioi baino gehiagoko ekarpena egingo lukete. Gizarteari ekarpen handiagoa egingo liokete, paperak edukiz gero, beste alderdi batzuk hartu beharko baikenituzke kontuan.

Zer beste alderdi?

Batetik bonu demografikoa: langile gazteak dira, ekarpen handia egiten dutenak eta gastu gutxi eragiten dutenak osasun-, pentsio- eta hezkuntza-sistemetan, apenas erabiltzen dituztelako. Oso langile errentagarriak dira, ikuspegi demografikoari dagokionez. Eta bestetik, termino ekonomikotan funtsezko ekarpena egiten dute. EBk **“funtsezko gaitasunak”** esaten dio horri, hots, estatu orok behar dituen sektoreak, ezinbestekoak haien sostengurako. Covid gaitzaren testuinguruan bereziki erakutsi dute funtsezkoak direla; izan ere, kualifikazio txikiko sektoretan lan egiteaz gain, hala nola etxez etxeko banaketan eta fruta- zein barazki-bilketan, beste batzuetan ere aritu dira lanean, espezializatuko zaintza-lanak egiten, besteak beste.

Zein da paperik gabeko migratzailearen benetako profila Espainian?

Migrazio-eztabaida Espainian erabat obsesionatuta dago hegoaldeko mugarekin, eta oso gutxi sartzen dira han barrena. **Paperik gabeko bost atzerritarretik lau Erdialdeko Amerikakoak eta Hego Amerikakoak dira.** Venezuela, Honduras eta Kolonbia herrialdeetakoak, batez ere. Legez iristen dira, turista moduan, aldi baterako lan-bisarekin edo asilo-eskatzaile moduan, eta horiei gero eskaera ukatu eta bat-batean egoera irregularrean geratzen dira.

Hesiaren gainetik salto eginda edo pateraz zein kaiukoz iritsitako Saharaz hegoaldeko immigratzaileak salbuespenak dira, migrazio irregularraren testuinguruan. Baina eztabaida publikoa hor kontzentratzen da, hegoaldeko muga. **Hamar immigratzaile irregularretik bat bakarrik da Afrikatik etorritakoa, eta horien erdia Marokokoak dira.**

Zure ustez, Gobernuak zergatik egiten dio uzkur erregularizazio-prozesuari?

Immigrazioaren gaiak oro har eta erregularizazioarenak bereziki, edo migrazioaren inguruko gai guztiak politikoki erradioaktiboak direlako. **Halako prozesu bati ekin nahi dion gobernu orok herritarrei egiaztatu behar die aitzakiarik gabeko arrazoiak daudela erregularizazio-prozesua gauzatzeko.** Portugalen arrazoi sanitarioa baliatu zen, eta Italian, berriz, arrazoi ekonomikoak, hots, fruta- eta barazki-bilketan egiten duten ekarpena. Bi kasu horietan, prozesuak mugatuak izan dira, lortu nahi zenetik urrun geratu dira, baina oso ondo adierazten dute zeinen zaila den gobernu batentzat hori herritarrei azaltzea. Espainian Gobernuak esango balu erregularizatu egin behar dela, berehala agertuko lirateke horren kontra biztanleriaren multzo handiak, hainbat arrazoi tarteko.

Arrazoi horietako bat dei-efektua esaten zaiona da, ba al da hori hala delako frogarik?

Dei-efektua, azken hiru hamarkadetan, ez dator bat ez Espainiako esperientziarekin eta ez Europako beste herrialde batzuetakoekin. Fluxuak, neurri handi batean, herrialde hartzailearen egoera ekonomikoaren baitan daude, haiek eskatzen baitituzte. **Erregularizatzean jendea masan etortzera gonbidatzen delako ustea du jendeak,** baina erregularizazioaren berezko baldintzek hori hala izatea galarazten dute; izan ere, alde zurretik herrialde hartzailean denbora jakin batez bizitzea eskatzen zaie. Biztanleria-mugimenduak ez dira egiten erregularizazioa lortzeko aukerarengatik, askoz ere arrazoi sendoengatik baizik: lan-aukerarengatik batez ere, eta, neurri txikiagoan, asilo bila, eta horiek behartutako desplazamenduak dira. Eta, jakina, helmugako herrialdean aukera horiek daudelako; hau da, herrialde batek aukera horiek ez baditu, ez dira erakargarriak migratzaile posibleentzat.

Bertan behera utzi beharreko argudio gehiago...

Erregularizazioaren kontrako beste argudio bat da modu ilegalean etortzen direnei bertan geratzeko aukera ematen diegula eta arauak betetzen dituztenek, berriz, ez dutela aukera hori. Nolabait ere, **'ilaran jartzea'** litzateke. Eta ni bat etorriko nintzateke argudio horrekin ilara egongo balitz. Baina migrazio-kudeaketarako sistema hain dago obsesionatuta fluxuak geldiaraztearekin, non hona etorri nahi duen edozein langilek ezin duen legez etorri jatorrian baimena eskatuta ere. Teorian bai, baina praktikan, legezko migrazioarako oztopoak sekulakoak dira, bai etortzen direnentzat eta bai kontratatu nahi dituzten enpresaburuentzat, eta egiten duguna da herritar-agiria eman sistemaren ondorio natural bati. **Erreformatu dezagun sistema, jendeak legez etortzeko aukera izan dezan, eta orduan bai, orduan esan ahal izango dugu beharrezkoak direla kontrol-mekanismo zorrotzak, jendeak ilara errespetatu dezan.**

Pandemiak agerian utzi du migratzaileek gabe ekonomiaren zati batek hondoa jotzen duela. Zer irakaspen atera behar dira horretatik?

Egia da, eta orain pandemian askoz ere nabarmenago ikusi dugu, **immigratzaileek gizartean funtzio ordezkaezina betetzen dutela. Ekonomiaren ekuaziotik baztertuko bagenu, ekonomiak behera egingo luke besterik gabe.** Funtsezko lanak egiten dituzte kualifikazio txikiko lanpostuetan: fruta eta barazkiak biltzen dituzte, produktuak etxeetara eramaten dituzte, zaintza-lanak egiten dituzte, bai oinarrikoak haurrak zaintzen eta bai prestakuntza handiagokoak mendekotasuna duten pertsonak zaintzen, osasun-sektorean barne.

Gaitasun-aukera guztietan, txikienetik handienera, immigratzaileek funtsezko ekarpena egiten dute. Europako herrialde guztietan dute hori eztabaidagai. Oso interesgarria izan da Boris Johnson ZIUtik irtetea Zeelanda Berriko eta Portugalgo erizain bati eta mediku bati eskerrak ematen. Konturatu zen immigratzaileak ezinbestekoak direla Britainia Handiko osasun publikoaren sosten-gurako. Antzeko zerbait gertatzen da Espainian. Immigratzaileak ezinbestekoak dira orain eta are ezinbestekoagoak izango dira etorkizunean. Biztanleria-piramideak gero eta oinarri estuagoa du, lan-merkatuak gure demografiak eman ditzakeen baino langile gehiago behar ditu. **Kontua da estrategikoki eta zentzuz planifikatu behar dugula, hau da, pertsonen mugikortasuna gure lan-merkatura egokitu.**

Egokitzeko modu horren adibide positiborik ba al dago egun?

Bai, Alemaniak egiten duena. **Gaitasunen inguruko lankidetz globala** esaten zaio. Alemania lan-merkatuan etorkizunean izango dituen beharrak lantzen ari da, eta erizainak beren jatorrizko herrialdean prestatzen ari da gero Alemaniara joan daitezen, baina jatorrizko herrialdean geratuko direnak ere badira, hala nola Filipinetan. Horrek aditu-ihesa eragozten du, ihes horrek jatorrizko herrialdean funtsezko premiak deskapitalizatzea eragiten baitu.

Eta Alemaniak honako hau ere lortu du: etorkizunean langile horien onura jasoko duten enpresaburuek ordaintzea pertsona horien prestakuntza jatorrian. Zirkuluaren kuadratura da, oso berritzailea, interesgarria, denek ateratzen dute etekina, eragina du bai jatorrizko herrialdearen garapenean eta bai helmugako herrialdearen garapenean. Hori da guk egin behar duguna. **Erregularizazioak eredia erreformatzeko askoz ere asmo handiagoko programa baten zero fasea baino ez du izan behar, 15 urte barru beste erregularizazio masibo bat egin behar ez izateko.** Sistema seguru bat behar dugu, aurrez ikus daitekeena, berme guztiak izango dituen, jada hemen daudenei kalterik egingo ez diena, guztiontzako aberastasuna eta aurrerapena sortuko dituen, eta eskubideen esparrua aintzat hartuko dituen. Eta hori egin daiteke.

Zergatik da pandemia aukera ona migrazio-kudeaketarako sisteman aldaketa horiei ekiteko?

Aukera paregabea dugu, orain mugak isilik daudelako, epe luzera aurreikustea eragozten duen migrazio-presio handirik gabe. Dagoeneko hemen dauden migratzaileekin aldaketa probatzeko maniobra-tartea dugu. Eta Espainiako gizartea, oro har, **konturatu da etorkinek ekarpen handia egiten diotela gure ekonomiarri, gure osasunari eta gure segurtasun epidemiologikoari.** Une egokia da eztabaida hori planteatzeko.

Zer alderdik edo korrontek planteatu behar du eztabaida hori?

Ez da ezkertiarrek edo nik bezala immigrazioaren aldeko aktibismoan urteak daramatzetenek bakarrik planteatu dezaketen eztabaida bat. Gizarte osoaren intereseko eztabaida bat da. Ideologia-espektro zabal bati eragiten dioten baliok eta interesak hartzen ditu bere baitan, izan enpresaburu, izan langile edo izan Covid-ari etorkizunean zentzuz aurre egin nahi dion edonor. Elizari ere eragiten dio, Vatikanokoak ere eskatu baitu erregularizazioa.

Neurri hori ez luke inork, ezein alderdi edo talde sozialek bere egin behar, gizarte osoarena izan behar baitu. Inoiz ezagutu ez dugun alde on bat du: **migratzaileen erakundeek berek abiarazi dute eztabaida.** Eskubideen inguruko ikuspegia nabariagoa da, logikoa denez, baina gure herrialdean historikoa da. Lehenbiziko aldia da haien sustatzen dutela ideia hori, eta haien proposamenarekin bat gatozenok dei egin behar diegu, baita ere, zentroari eta zentro-eskuinari, enpresaburuei eta tradizioz hor egon diren talde aktibistek baino ikuspegi zabalagoa duten taldeei. Hori da bide bakarra, eztabaida irabaziko bada.

Ez al triste samarra eztabaida irabazteko ikuspegi ekonomikora soilik jotzea?

Gizartea anitza da. Gure ongizate-estatuko oinarritzko eskubide orok ikuspegi etiko bat du eta beste ikuspegi praktiko bat, eta horiek ate banatik sartzen dira. Garrantzitsuena eztabaida horrek bere baitan hartzen dituen balioen eta interesen aniztasuna aintzat hartuko duen adostasun soziala lortzea da. Estatu-itun deritzo horri.

Estatuan asko gara, eta nork bere ikuspuntua du. Niri lepora dakidake nire diskurtsoa utilitarista eta ekonomizista dela. Eta horrek ez du esan nahi eskubideen ikuspegitik planteatzen dutenekin ados ez nagoenik. Aitzitik, hori da nire ikuspuntua. Baina uste dut eztabaida zabalagoa dela, eta ikuspegi praktikoagoa behar dutelako sentimendua duten pertsonak ere sartu behar ditugu eztabaidan, halakoak ere egon badaude eta. **Ez dugu inor engainatzen integratzea bidezkoena eta zentzuzkoena ere badela esaten dugunean.**

